



**Gai Orokorren Kontseiluaren bilera (EBTaren 50.Artikulua)
Brexit ondorengo trantsizio epea: negoziazio-gidalerroak
Bruselan, 2018ko urtarrilaren 29an**

TRANTSIZIO EPEA

Kontseiluak (50. art.) *Brexit*aren negoziatorako gidalerro berriak onartu ditu trantsizio eperako EB-27ren posizioa zein den islatzen dutenak.

Honen arabera, trantsizio epean Erkidegoaren altxorra bere osotasunean ezarriko da Erresuma Batuan beste edozein Estatu-kide izango balitz bezala. Hala ere, Erresuma Batua hirugarren herrialdea bilakatu bezain pronto, ez du EBeko erakundeetan ezta erabaki-prozesuetan parte hartuko ere.

Negoiazio-gidalerro hauek Batzordeari, EBeko negoziatzailea izanik, gai honen inguruan Erresuma Batuarekin negoziazioak hasteko agindua ematen diote.

BREXITAREN NEGOIZAZIOEN EGOERA

Michel Barnier negoziatzaileak Erresuma Batuarekin zegoen egoeraren berri eman zion Kontseiluari. Era berean, Barnierrek ministroei azaldu zizkien bigarren fasean jorratuko diren lan ildoak. Nagusiki, trantsizioa eta etorkizunerako harremanen esparruari buruz eztabaidatuko da, ateratzearen inguruko gaiekin batera.

Ministroek bi ideia azpimarratu zituzten; alde batetik, ateratzearen inguruko gaiei bukaera ematearen garrantzia eta, bestetik, txosten komunak eta testu legegileak 2017ko abenduan adostutako konpromisoak jasotzen dituztela bermatzea. Halaber, ministroek berriz ere aipatu zuten negoziazio fase berri honetan bat egitearen beharra.

ETORKIZUNEKO HARREMANAK

Etorkizuneko harremanei dagokionez, ministroek espero dute Erresuma Batuak 2018ko martxoak baino lehen bere posizioa argitzea. Data horretan Europako Kontseiluak (50. art.) gaiaren inguruko zenbait orientazio onartzea espero da.